

EUROPA: KONTINENTEA ETA EUROPAR BATASUNA

Arloa: GIZARTE ZIENTZIAK**Gaia:** EUROPA: Kontinentea eta Europar Batasuna**Maila:** LH 3. ZIKLOA 2. MAILA**Saioak:** 8/9**Proposamenaren testuingurua:**

Ikaslearen inguru hurbilaren ezagupenareki jarraituz, bere herria, Lurraldea eta Estatuak ikusi eta gero, kontinentea ikustea dagokio. Aurreko atalak ikusita, ikasleak Lurralde edo eremu zabal partaidea sentitu behar da. Atal horietan, fisiko eta politiko ezaugarriak ikustez gain, hango kultura eta ohiturak lantzen dira, ikasleak bere bizitza eta sozial erlazio atal garrantzitsu bezala sentitzeko nahaian.

Baina gizakiaren ingurua askoz zabalagoa da, beraz, saio hauetan gure inguruko Estatuak osatzen duten kontinentearen ezaugarriak ikusiko ditugu, bai fisiko aldetik (mendiak, itsasoak, ibaiak...) bai inguru sozial aldetik (estatuak, lurraldeak...). Garrantzi berezia eman behar diogu atal honetan, Europan sortutako ekonomi elkateari (Europar Batasuna). Gaur egun munduko ekonomian kompetentea izateaz gain, Estatuaren arteko harreman loturak ezarri eta sendotzea izan behar du helburu Europar Batasunak.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako Gaitasuna	Prozesu osoan
Ikasten ikasteko gaitasuna	A.2, A.3, A.4, A.5, A.7, A.8, A.9,A.10,A.11, A.12
Matematikarako gaitasuna	A.3, A.4,
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	A.8,
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Prozesu osoan
Gizarterako eta herritartasunerako Gaitasuna	A.1, A.5, A.7, A.8, A.11
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	A.1, A.2. A.5, A.6, A.7, A.8, A.11
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako Gaitasuna	A.2, A.3, A.4, A.5, A.6, A.7, A.8, A.9,A.10,A.11, A.12

Helburu didaktikoak:

1. Europa kontinentearen ezaugarri fisikoak ezagutzea (ibaiak, mendiak, mugak...).
2. Informazioa aurkezteko grafikoak erabiltzea.
3. Europako Estatuak ezagutzea.
4. Estatu garrantzitsuenen hiriburuak ezagutzea.
5. Europar Batasunaren Estatuak eta antolamendua ezagutzea.
6. Europar Batasunaren ekonomi aldetiko garrantzia baloratzea.
7. Interneten informazioa bilatzeko eta sailkatzeko gai izatea.
8. Bere burua eta ikasgai egindako aurrerapena baloratzeko gai izatea.
9. Talde lana egiten denean iritzia ematea eta informazioa bilatzeko edo laguntza eskatzeko egin behar diren pausoak ematen jakitea.
10. Aplikazio informatiko errazak erabiltzerakoan autonomia izatea.
11. Taulak eta informazioa emateko era desberdinak interpretatzea.

Edukiak:

- Europako mugak
- Ozeanoak eta kontinenteak
- Informazioa aurkezteko tresnak:
 - ✓ Tarta grafikoak
 - ✓ Beste grafiko batzuk
- Angelu-garraigailuaren erabilera
- Europako erliebea
 - ✓ Penintsulak-uharteak-artxipelagoak
 - ✓ Mendikateak eta mendiak
- Europako hidrografia
 - ✓ Ibaiak eta isurialdeak
- Europako klima
- Europako Estatuak
- Europar Batasuna

Jardueren sekuentziak:

- a) Planifikazioa: A.0
- b) Burutzea: A.1, A.2, A.3, A.4, A.5, A.6, A.7, A.8, A.9, A.10, A.11
- c) Aplikazioa: A.12.

Ebaluazioa:

- Europako mugak ezagutzen ditu.
- Datuak tarta grafikoen bidez azaltzen ditu.
- Badaki angelu-garraigailua erabiltzen.
- Europako erliebearen ezaugarriak garrantzitsuenak (uharteak, mendikateak, ibaiak... badaki kokatzen.
- Europako Estatu inportanteenak ezagutzen ditu.
- Europako klima desberdinak, eta haien ezaugarriak bereizten ditu.
- Europar Batasunaren garrantzia ulertzen du.
- Hiztegia erabiltzen du informazioa bilatzeko.
- Taldekoei eta irakasleari galdetzen die informazioa lortzeko.
- Testo bat irakurtzen du ideia inportanteenak ulertuz.
- Informatika aplikazio errezeekin autonomia da.
- Taldean iritzia ematen du.
- Ekintzetan parte aktiboa hartzen du besteak errespetatzen.
- Bere burua ebaluatzeko gai da.
- Ikasi duena baloratzen du.

Tresnak:

- ✓ Eguneroko behaketa.
- ✓ Ekintzetan burutako fitxak.
- ✓ Autoebaluazioak.
- ✓ Ebaluazioa.